

03

Mendebaldeko haranak

Artzetales

Turtzios harana

Karrantza harana

Lanestosa



03

Mendebaldeko haranak

BI-630 eta BI-3622 errepideetatik doa kultur ibilbidea, eta lurralde pribilegiatua zeharkatzen du: inguru honetan, harmoniaz bizi dira paisaia naturalak eta nekazaritza- zein abeltzaintza-jarduerak, zenbait udalerrri historiko elkarrekin lotuz. Bidaiaren amaiera Lanestosa izango da.



Artzetales

Habitat sakabanatuko landa-udalerrria da, zenbait parrokiatan antolatua; San Miguel de Linares da auzo nagusia.

Andra Maria eliza (Traslaviña auzoa)

Habearte bakarrek oinplanoa du: bi tarte karratu ditu, eta harlangaitzez egindako burualdea, zertxobait estuago eta baxuagoa. Pilastra gaineko ganga nerbidunek estaltzen dituzte tartekak. Oinaldean, fatxada horretan pixka bat alboraturik eta sarrerari babesa emanaz, dorre bat du, goian kapitela berriztatua daukana.

Portalea arkibolta hirukoitzekoa da, zein bere zutabetxoan bermaturiko moldura ahur eta ganbidez hornitua. Giltzarrian armari txiki bat dago, Zuñigarren banda eta kate-azpa dituena.

Barruan beste armari bat dago, burualdean; zubi bat eta ur gainean flotatzen ari den buru bat ageri dira, honako idazkun honekin: «*Por pasar la puente ponerme a la muerte*».

Traslaviñatarren leinuarentzat errudun epaia zekarrela, Miranda de Ebron mezularia lintxatu zutenekoaz ari da, zati batean egia zati batean elezahar.

Burualdea eta portalea xv. mendean amaieran datatu behar dira, baina geroago, xvii. mendean, fabrika esku hartu zen, eta 1700 inguruan gangak berregin ziren. Deskribaturiko armaria xvii. mendekoa da.

Erretaula nagusia. Egur urreztatuzko multzo arkitektonikoa, 1768an datatua; Marcos Sopena da egilea, eta Francisco Munar urreztatzailea.

Done Mikel Goiaingerua eliza (Linares auzoa)

Bidetik ia irten gabe, muinoaren gainean, eskuinetara, udalerraren erdigunea dago, udaltxea eta Done Mikel Goiaingeruaren eliza plazaren inguruan antolatutik dituela, haraneko ametza hazi ohi zen lekuan, kontzejuen kokagune historikoan.

Eliza, bada, izate eta biografia konplexuko eraikina da, nahaste bat. Kanpoaldean hegoaldeko portalea nabarmendu behar da, teilapeko ataripean. Arkibolta hirukoitzak dauka, marko moduko moldura leun batek berriz inguratua; barruko biak zutabetxo ukondotuen gainean bermatzen dira. Interesgarriak dira bai arkibolten dekorazioa (erroelak eta apaingarri puntadunak) bai kapitela (nukleoari itsatsitako hosto soilak). Portalea xiii. mendean bigarren erdikoa edo izango da, eta erromaniko herritarren testuinguruan ulertu behar da. Hortik aurrera, gune errenazentista baten gainean egindako zabalkuntzak dira elizaren gainerako atalak.

Erretaula nagusia. Salomonikoa eta mahatsez hornitua, hiru kaletan antolatutako gorputz bat eta atikoa ditu, barroko jatorri dagokion legez; Francisco Martínez de Arce egin zuen, 1695ean. Ez da hala gertatzen tailla nagusiarekin –Done Mikel–, errenazentista baita, 1535 ingurukoa, agian burgostarra eta siloeskoa.

Arrosarioaren erretaula, eskuineko kaperan: estilo rokokoan egina; Andra Maria ageri da San Domingo Guzman arrosarioa ematen diola. Irudiaren eite eder eta ezta ikusirik, Luis Salvador Carmona gorteko eskultorearena dela pentsa daiteke (1765 inguruan).

Casa Mía

Karrantzako bidean dago, El Peso auzoan, errepidearen ondoan, eskuinetara. Casa Mía baserriari ongi erakusten du Enkarterriko nekazari etxearen tipologia –Kantabriaren ekialdeko etxearekin ahaidetua–. Formari dagokionez, fatxadaren eraketak ezberdintzen du Bizkaia erdialde nahiz mendebaldeko baserrietik: garaiagoa da, eta alboetan jarritako harrizko bi antaren artean sartutik dago; bi anta horiek («pipianos») mehetu egiten dira, haien gainean egur torneatuzko eguterak berma daitezten. Eguteraren azpian atari moduko jarraitu

Aurreko orrialdean:

Lanestosa. Madrilen bizi zen lanestosa batek eraikia, Colina Jauregiak bere egiten du Kantabriako landetxeen eite ederra.

38. orrialdea:

Artzetales. San Migel. Arrosarioaren erretaulak eskualdeko rokoko tailarik finenetako batzuk dauzka.

bat eratzen da («estragal»), lurrak emandako produktuak noizean behin gordetzeko oso egokia. Teilatuaren erpina, bestetik, horizontal bilakatzen da, haize-erauntsiei hobeto eusteko («miru-buztana»). Etxean pertsona eta abereentzako sarrera bakarra dago, dinteldua eta erdira ekarria. XVIII. mendeko bide da.

Turtzioz harana

Pixka bat jaitsi eta gero, Turtzioz haranean sartzen gara; merezi du gelditzea, bazter zoragarri ederra baita. Agüera Ibaiak ureztatzen du, Bizkaiko Golkoan itsasoratu aurretik. Gehienbat, bi udalerritan banaturik dago: Villaverde eta Turtzioz. Azken hau Bizkaikoa da. Bera bisitatzeko, hiru bat kilometro egin behar dira BI-2617 errepidetik.

La Puenteko Kristo Santua ermita Agüera ibaiaren paraleloa den etxe ilara luze baten hasieran dago. Hartz egindako eraikina da, gurutze forma duena eta adreiluzko gangek estalirik dagoena. Fatxadan sarrera dago, dinteldua eta angeluetan nahiz ateburuan apurturiko moldura biribildu batez inguratua. Gorago argi-zulo bat irekitzen da; guztiaren gainean kanpai horma dago: gorputz bakarrekoa da, eta erdi-puntuko bao bat dauka pilastra leunen artean.

Estilo barroko tenplu duina da, agian gorteko eruedetan inspiratua. Dokumentazioari esker, badakigu Liman apaiz zebilen José Mollinedo jaunak emandako dirua erabili zela ermita eraikitzeko, eta 1724an auzitan egon zela, lanak hasi eta gutxira: Francisco Somarriba harginak hobekuntzak ordain zekizkiola eskatu zuen. Lau urte geroago, kanpai horma egin zuen Francisco de Loredok.

Kantabriar etxeak

Apur bat aurrerago, ezkerretara dagoen zabalgunean, baserri multzo txiki bat dago, Kantabriako XVIII. mendeko landa-etxeen eraikuntza-molde eta tekniken araberakoa. Kasu honetan etxe

Orrialde honetan:

Turtzioz. San Rokeko zezen-plaza.

Enkarterrietan eta Kantabriako ibar mugakideetan ugari izan ziren zezen-plazak, beti ermita baten alboan eginak.

41. orrialdea:

Turtzioz. Romaniako San Pedro eliza. Erretaula barroko interesgarriak. Sorospenarenak lehengo hiru erliebe errenazentista ditu.



bakartuak dira, baina beste batzuetan (Cueto –Turtzioz–, edo Bollain eta Bernales –Karrantza–) ilarak osatzen dituzte; balkoidunak dira guztiak, eta egurrezko eguterak dituzte bereizgarri.

La Puente jauregia

Udalerraren erdiguneari begira dagoen arboladi batek inguratzen du. Oinplano karratua du, eta bolumen kubikoa; fatxada hiru ardatzetan eta beste hainbeste solairutan modulaturik dago; plaka leunek definitzen dituzte solairuak, eta bao dintelduek eta armarririk ardatzok. Baoak plaka leuneko markoek inguratzen daude, irtengune horizontalak dituztela; sarrera, berriz, doriar pilastrek markoztatzen dute. Burdineria aberatsa dauka: plataforma-erako balkoiak, barra eta beso edo jabaloi originalen hornitua. Armarrira La Puente leinuarena da, eta orbela, lehoiez eta kasket motodunaz apaindurik dago.

xvii. mendearen bigarren hereneko barroko klasizistaren baitan kokatzen da.

Romañako Done Petri eliza

Metro gutxitara dago. Eraikin noblea da, hiru habearte eta hiru tarte dituena; habearte nagusiak hiru horma-ataleko burualdea dauka. Lehenengo tartean mailakaturik daude habearteak, eta gainerakoetan berdindurik. Zutabeek definitzen dituzte tarte eta habearteak; zutabeen gainean gangetako nerbioak bermatzen dira, bost giltzarri dituzten arku tertzeleak, alegia. Oinaldean, dorreari eusten dioten bi pilastra handiren erdian, portale nagusia dago: pilastren arteko erdi puntuko sarbidea da; atiko dinteldua dauka, Done Petriren harrizko irudia erakusten duena. Beste portale zaharrago bat dago hegoaldeko ataripean: arku zorrotzekoa da, arkibolta eta zutabetxoez hornitua; giltzarrietan, eguzkia, izpiak, argi-zuloa, hiru gurutze eta abar daude taillaturik.

Azalduriko guztia eta hegoaldeko leiho aberatsa nahiz alde berean dagoen idazkuna ikusirik, pentsa daiteke 1521ean

hasi zela eraikitzen, Turtziozen eta gotiko berantiarren estiloan; baina obra –portalea, korua eta abar– xvii. medean amaitu zen, estilo klasizistan.

Emaiza: zutabedun areto eliza interesgarri bat, molde gotikoan eraikitzen hasi, eta eredu espazial modernoagoetara lerratuko zena.

Erretaula nagusia. Klasizista da; kokalekuak beharturik, taxu alakatu edo poligonalekoa da; bi solairu eta atikoa, bi kale eta hiru kalearte ditu, beheko herena taillaturik duten zutabe ildaskatuek definiturik. Erretaula-hobiak erliebe narratibo eta eskultura exentuek jartzeko dira; Bartolomé Martínez, Pedro Bernales, Agustín Gil erretaula-egile eta eskultoreek eta beste zenbaitek egin zuten guztia, 1626az geroztik.

Alboetan, **Maitasun Ederraren erretaula** (ezkerrean) eta **Sorospeneko edo Karmengo Andra Mariarena** (eskuinean) daude; azken honek xvi. mendearen erdialdeko erliebeak aprobetxatzen ditu; lehenagoko beste altzari batetik harturik daude, eta Jesukristoren genealogia erakusten dute. Mazoneria barrokoa dute biek, mahatsez apainduriko zutabe salomonikoen eraturik; Francisco Martínez de Arce 1680ko hamarraldian eginikoak dira.

San Roke ermita eta zezen plaza

Enkarterriko mendebaldean sarritan gertatzen da tenplua eta zezen plaza elkarrekin egotea. Zezen plazari buruzko dokumentazioa (1692) zaharragoa da ermitari buruzkoa baino (1709); Domingo Cueto indianoak bidalitako legatuari esker berreraiki ahal izan zen ermita.

Zezen plaza zirkularra eta harlangaitzekoa da; zezentokia eta oinarrizko harmaila soilak ditu. Ermitak habearte errektangeluar bakarra dauka, eta, aurrealdean, burdin hesiaz itxita ataria dago; bertatik, paisaia zoragarria ikusten da, tenplu txikietan –beren kokaleku apartagatik– sarritan gertatu ohi den legez. Toki ikusgarria da, benetan.





Karrantza harana

Villaverdeko bide gurutzera itzuliz gero, bidaia jarraitu eta Karrantza haranera joateko aukera izango dugu: habitat sakabanatuko lurralde zabala da, larrez inguraturiko herrixka txiki eta zaharrak han-hemenka barreiatzen direla, hamasei parrokiatan antolaturik. Gune estrategikoetan kokaturik daude, mendi zirku batek itxi eta Karrantza ibaiak (Kantabriako Asón ibaiaren adarra) ureztaturiko eremu geografikoan.

Habitata

Escrita mendatetik, bera baita haraneko sarrera, Bizkaiko paisaiarik ederrenetakoa ikus daiteke: herrixka eta baserri sail luze bat larre berdeen artean; Zalama mendiaren inguruan, pantaila-moduko itxitura bat, eta urrunago beste bat, neguan elurrak estaltzen dituen Kantabri-

Orrialde honetan:

Karrantzako Harana: zelaiak, basoak, zerua eta lanbroa, eta tarteka txabolak, baserriak eta herriak, gizakien iragarle. Hemen belar usaina dario.

43. orrialdea:

Apaingarri urrikoa, Ahedoko erretaula Kontrarreformaren estetika lehorraren adierazgarria da.

ako gailur kareharrizkoetan. Aspalditik, behi aziendaren hazkuntza intentsiboa da Karrantza haraneko jarduera nagusia.

El Suceso

Bidetik irten eta ezkerretara jo behar da, oinpean haran osoa duen toki santu honetara igotzeko. Santutegia 1733ko eraikin apala da, «gertakaria», hau da, Andra Maria Maria Rozas artzainari agertu zitzaioneko data baino apur bat geroagokoa (1670).

Ermitari zezen plaza moderno bat erantsi zaio, jai kutsua nabarmentzeko, eta, gainera, jolas parke eder eta zabal bat –bertan, Gertakari Onaren Andra Mariaren monumentua dago, 1923–.

Biáñez auzoko eliza zaharra

San Andresen izenpeko bi eliza daude Biáñezen, elkarrengandik hurbil. Zaharrena –hilerriari lotua eta elizkizunik gabe 1885az geroztik– xv. mendearen amaierako tenplu gotikoa da (portalea, burualdeko argi-zuloa eta hegoaldeko leihoa); erretaula kentzean burualdeko horman agerturiko margolanak dira elementurik interesgarriena.

Hormaren gainean **margoturiko erretaula** da: hiru solairu, atikoa eta pedrela dituela, eta hiru kaletan antolaturik, nekaldiaren irudiak erakusten ditu. Foru Aldundiak 1993an errestitatu eta gero, era honetako behin-behineko konponbideen lekukoa da. Maila artistikoa ez da oso handia, baina nahikoa da genero honek Bizkaian izan zuen presentzia ulertzeko (1535 inguruan, joera errenazentistarako igarobidean, alegia).

Ermitaren atal batean, haranaren historiari eta ondareari buruzko erakusketa didaktiko bat jarri da.

Hernáiz txaleta

Conchako lekurik onenean dago, herriko auzo nagusian, eta Puerto Ricotik itzulitako Hernáiz anaia merkatari karrantzarrek finantzatu zuten, 1904an. Donibane Lohitzuneko Jean-Baptiste

Arroki arkitektoari eman zioten etxea egiteko agindua, eta berak estilo mistoa baliatu zuen, normandiarra (estalkiak) eta modernista (ataripea eta beheko solairua). Azpimarratzekoak dira, halaber, begiratokiak eta paramentuetan nahiz zurajejan erabilitako koloreen konbinazioa (zuria eta gorria). Burdin hesiaz itxitako lorategia ere jauregia bezain dotore eta fina da.

Ahedoko multzoa

Ahedon, Conchako erdigunean gailentzen dela eta sarbidea La Tejera auzotik duela, multzo interesgarri bat dago: eliza bat (Done Mikel), zezen plaza baten hondakinak, bolatoki bat eta ikastetxe zahar baten hondarrak.

Hiru tartetan sinkopaturiko habearte bakarra du elizak; lehenengo tarte biak gurutze gangaz estalirik daude, eta bestea kanoi gangaz. Oinaldeko fatxadaren portale bat irekitzen da, eta beste bat hegoaldekoan. Mendebaldeko fatxadaren gainean kanpai horma dago, bi gorputzekoa.

Fase klasizistako estilo barrokoa bat dator ezagutzen dugun kronologiarekin: 1619, funtsezkoari dagokionez; Domingo Vélez de Palacio izan zen hargina. Kanpai horma eta San Antonio Paduakoaren kapera geroagokoak dira –1707 eta 1713koak, hurrenez hurren–, Antonio de la Brenarenak.

Erretaula nagusia ornamenturik gabeko egiturako ale garrantzitsua da: bi solairu, atikoa eta pedrela, bost kaletan antolaturik, eskultura exentua eta erliebeetarako. Felipe de la Gorgollak egin zuen, 1640an.

San Antonio Paduakoaren erretaula txikia. Estilo rokokoan eginikoa da; titullarraren kalitate bikaina nabarmentzen da bereziki, guztiz fina, gorteko lantegikoa.

Ahedoko gramatika-eskolarenak, bestetik, oso hondar zaharrak dira. Gaur egun hiru arkuko harlanduzko fatxada daukan masa da; bertan gailen, armari handi bat ageri da. Inguruaren garai bateko joritasuna ekartzen du gomutara,



Diego Ahedo Palermoko artzapezpikuak hornitu zuenekoa. XVI. mendearen amaierako estilo errenazentistan egin zen.

Aldeacuevako eliza

Parrokia urrun honetara iristeko, haranetik, La Tejera auzoaren sarreraren ondotik abiatu behar da, Ahedoren azpitik. Bertan, jesuiten ikastetxe bat fundatu nahi izan zuen Pedro Negrete indianoak; asmoa gauzatu ez zenez, San Bartolome eliza eraikitzeko

Orrialde honetan:

Aldeacueva. Eliza. Negrete Sierra amerikanoak ondare ikaragarria utzi zuen Aldeacuevan.



erabili zen haren legatua. Luis Millak marraztuko zuen, Juan de Villanueva akademikoaren aparejadoera zenak. Eraikina gurutze formakoa eta modularra da; kupula baxua du erdian, eta dorre bana fatxadaren bi alboetan. Estiloa: neoklasizismo hotza, datari dagokion legez (1789). Hala ere, elizaren adierazpidea El Escorialen soiltasunaren zordun da, neurri handi batean. Luxu handiz egin zen, altzariak bezalaxe;

45. orrialdea, goian:

Lanestosako kale zuzen-zuzenak 1287an marraztu ziren, baina ez ziren inoiz haietako orube guztiak bete.

45. orrialdea, behean:

Lanestosako kale bat. Zoruko harri landugabeetan Bizkaiko herri bitxi hau zahar-zaharra dena igartzen da.

gaur egun ordea, galdurik daude altzari gehienak, San Bartolomenen martirioaren historia izan ezik (Guerra gorteko eskultorearena, 1791).

Lanestosa

Aldeacuevatik, errepide moderno baina txar bat harturik, Calera ibaiaren haranera eta La Calera del Prado auzo karrantzarrera irits daiteke; eta bertatik, Lanestosara, Bizkaiaren mugaldeko hirira.

Baina bada Lanestosara iristeko aukera erosoago bat: Conchatik abiatu, eta Soscañotik, Ubal mendatetxotik eta Sangrices auzotik igarotzen den errepidea.

Hirigintza

Kantoiak ebakiriko hiru kale luze eta zuzenen bitartez antolaturik dago, Calera ibaiaren ezker aldean. Lerro horietan, baserri, jauregi nahiz bizitegi dotoreak elkartzen dira, zoladurak landa-estilokoak direla. Kalitate handikoa da guztia. Laredoko errepidea XIX. mendeko zabalgunea da. Erdi Aroko hiribildu bizkaitar guztietarik, Lanestosa ederrenetakoa da.

Zubi zaharra

Calera ibaiaren bi bazterrek lotzen ditu; harlangaitzezkoa da, eta arku bakarrekoa. Bernardo Umananek marraztu zuen (1760), Gaztelaren eta Bizkaiko Golkoaren arteko salgai trafikoaren segurtasuna areagotzeko; izan ere, bide zahar hori Lanestosaren jatorrian bertan dago (1287), hasieratik izan baitzen bide hiria.

Done Petri eliza

Eraikin duina da: bi tartzetaz eta gurutzaduraz osaturiko habearte bakarra du, eta dorrea oinaldean; gurutze gangez estalirik dago. Bi portaletatik, nagusia hegoaldean dago, elizpean; erdi-puntuko arku dobeladuna da. Dorreak, bestetik, bi gorputz ditu; goikoak, kanpai gela duenak, gainalde lau dauka.

Barruan, eskuineko horman, estandarte moduko bat dago sarturik:

izurrite batengatik, 1599an —egungo eraikina baino zertxobait lehenago, alegia— hiriak San Rokeri egindako botoaren oroigarri epigrafikoa da. Oraingo tenplua barroko soilaren moldean egin zuten Juan de la Sierra trazatzaileak eta De la Bodega anaiek.

Erretaula nagusia. Burualdeko horma betetzen du, eta egur urreztatuzkoa da; hiru kale eta hiru gorputz ditu, atikoa barne. Lan barrokoa da, sigi-saga ildaskaturiko zutabeek hornitua, eta artean Errenazimentuaren azken garaiko modetatik gertu zeuden trazatzaile eta eskultoreek egin zuten. Juan de la Dehesak marraztu zuen (1663); Juan Albo eskultura exentuk zizelkatu zituen, eta Juan de la Colinak erliebeak. Juan Sierrak polikoromatu zuen, 1767an.

Edurretako Andra Mariaren tailla (bera da herriko zaindaria) janztekoa da, rokoko eta oso fina, agian jatorri madrildarrekoa. Ezkerreko kaperan gurtzen da.

Colina jauregia

Real kalean dago. Hiru solairuko eraikin bakartua da; goikoan atikoa dago, eta behekoan sarrera, hau da, erdi-puntuko arku bikoitza, plaka-kapitela duen pilarean bermatua. Arkutik, bebarru enkatxodun batera sartzen da. Sustatzailearen armarrria dauka: Juan Antonio Escudero Gilón jauna, Madrilen kokaturiko merkatarri lanestosarra.

Kapare bati dagokion egoitza-etxe barroko bat izan zen emaitza. Fernando Antonio de Vegasek marraztu zuen, 1761ean.

Plaza zaharreko etxeak

Hiribilduaren kantoietatiko baten zabalgunea da plaza zaharra. Iparraldekoak hegoaldeari begira daude, eta Kantabriako molde herritarreko etxe urbano lerrotatuez osaturiko paisaiaren parte interesgarri bat dira (egutera jarraituak eta egurreko behatokiak). XVIII eta XIX. mendeen garai ezberdinetan datatu behar dira.

